

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Louis ERGUY

LOUIS ERGUYREN LUXUZKO ARGAZKI ALBUMA

1897an, 1880ko hamarkadaren amaieratik Donibane Garaziko bere etxean argazki-estudio bat zuen Louis Erguyk argazki album dotore eta luxuzko bat argitaratu zuen, Donibane Garazi, Hondarribia, Bidarrai, Elizondo, Orreaga eta Aldudeko 50 irudirekin. Album honek, gainera, nahiko estereotipatuak ziren erretratuak zitu. Horrelako albumen edizioa erosteko ahalmen handia zuten turistei eta argazkizaleei zuzenduta zegoen nagusiki. Hala ere, Donibane Garazin ezarritako argazkilari bakarra zenez, eta irudiak hartzeko ikuspegi berezia zuenez, izaera berezia ematen zion bere lanari. Artikulu hau ilustratzen duen argazki oso antzeztua Donibane Garazi inguruan atera zen eta bi gizon erakusten ditu, horietako batek gaztainak erretzeko danbor bati eusten diola. Gaur egun, album hau esku pribatuetan dago.